



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 29a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, basozaintzarekin loturiko salaketa eta zehapenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Iruñeko ikasleek asteburuetan liburutegi publikoak erabiltzeko dituzten arazoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, traumatologiako itxaronzerrendari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Ega ibaian hilik agerturiko karramarroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, 2013rako defizit-helburuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 2010-2014 urteetarako Landa Garapen Iraungarrirako Plana dela-eta hitzarmena sinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroak Harrera Zentroen Sare Nazionalerako jarritako baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak kontraturiko *coach* zerbitzuaren koordinazio-lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, diru-sarreraren betetze-egoerari eta abenduaren 31rako ekitaldi-itxierako aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, AP-15eko 50. irteeran (iparra) “Estella-Lizarra” seinalizazioa paratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak gauzatutako ekimenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, herritar-txartela ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Residen-en zehazten diren pertsona erabiltzailearen profil berriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, basozaintzarekin loturiko salaketa eta zehapenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, basozaintzarekin loturiko salaketa eta zehapenei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 31ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du basozaintzarekin loturiko salaketei buruz (8-13-/PES-00178). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneke, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

1.- Basozaintzak 2012an aurkeztutako salaketak.

Ingurumenaren arloan indarra duen araudiaren aurkako ustezko arau-hausteengatik Basozaintzak egindako 43 salaketa jaso ziren 2012an, guztira, Ingurumenaren eta Uraren Araubide Juridikoaren Atalean.

Arlo hauei buruzko salaketak izan ziren:

– Ehiza	14
– Arrantza	7
– Isurketak	10
– Mendiak	7
– IBEHFL	4
– Beste batzuk (kanpatzea):	1

Hona hemen zenbat salaketa aurkeztu ziren eskualde bakoitzean:

Lizarra Iparraldea 11; Tafalla 6; Tuter 8; Leitza 7; Ultzama 4; Doneztebe 2; Lizarra Hegoaldea 3; Agoitz 1; Erdialdea 1

2.- Zenbat salaketak ekarri duten zehapen espediente administratiboa.

Aurkeztutako salaketetatik (43), guztira 29k ekarri zuten zehapen espediente administratiboa izapidetzea.

Espediente horietako bat artxibatu egin zen. Gainerakoak gai hauei buruzkoak ziren:

– Ehiza:	7
– Arrantza:	6
– Isurketak:	4
– Mendiak:	7
– IBEHFL:	3
– Beste batzuk (kanpatzea):	1

Izapidetutako zehapen espedienteak eskualde hauei dagozkie: Lizarra Iparraldea 8; Tafalla 4; Tuter 5; Leitza 3; Ultzama 4; Doneztebe 2; Lizarra Hegoaldea 1; Agoitz 1; Erdialdea 1

Amaitutako 28 zehapen espedienteetatik 12tan zehapen ekonomikoa ordaindu da.

Hiru kasutan zehapenak ez du eduki ekonomikorik izan.

Gainerako kasuetan, ordaindu gabeko zorrak Diruzaintzara igorri dira betearazpen-bidetik kobra daitezen.

2012ko ekitaldian bertan Basozaintzaren salaketez gain 1.590 salaketa jaso ziren Ingurumenaren eta Uraren Araubide Juridikoaren Atalean.

Foruzaingoa: 448 salaketa (57 izapidetu ziren zehapen espediente gisa)

Guardia Zibila: 1.024 salaketa (45 izapidetu ziren zehapen espediente gisa)

Beste batzuk (esparruetako zaintzaileak, partikularrak): 18 salaketa (4 izapidetu ziren zehapen espediente gisa)

Departamentu honek izapidetu ez dituen salaketei dagokienez, kontuan hartu behar da honako hau:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura igortzen diren salaketei eskumen- eta bideragarritasun-azterketa egiten zaie haiek bideratu eta ebatzi aurretik.

Aurretiazko azterketa hori egitea ezinbestekoa da, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuaren eskumeneko arloetako batzuetan beste administrazio publiko batzuek ere eskumenak dituztelako, besteak beste toki administrazioek edo Estatuko Administrazio Orokorrak. Gainera, badira Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin partekatutako arloak ere; horixe gertatzen da ingurumena babesteko esku hartzearen arloan.

Bestalde, ez dira beti salaketan agertzen hura izapidetzeko behar diren datuak (salatzailea, salatua, ustez arauz kontrakoak diren egitateen azalpen zehatza, urratutako manua edo manua, eta abar), edo gertaerak egiaztatzen zailak izaten dira, eta askotan ezinezkoa da salaketa izapidetzea.

Behin eskumena eta bideragarritasuna aztertutakoan, zehapen prozedura abiatzeko gai diren salaketei dagokienez, izapidetzeko lehentasuna ematen zaie arau-hauste oso larriei eta larriei, arau-hauste arinen gainetik.

3.- Ingurumenaren eta Uraren Araubide Juridikoaren Ataleko langileak:

2012ko ekitaldian Ingurumenaren eta Uraren Araubide Juridikoaren Ataleko langileak hauek ziren:

Atalburua

Administrazio Publikoko bi teknikari (Adar Juridikoa)

Bi administrari

4.- Ea Sustapen Departamentuak Basozaintzaren, Foruzaingoaren eta Sepronaren salaketak izapidetzen dituen lurzoru ez urbanizagarriko legez kanpoko eraikuntzen kasuan.

Galdera horri erantzutea Sustapen Departamentuari dagokio. Galderari erantzuteko, departamentu horrek informazio hau eman digu:

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 201. artikuluan xedatutakoaren arabera, Foru Administrazioak eskumenak ditu hirigintza arloko legezketasuna berrezartzeko, lurzoru urbanizaezinean egiten diren obra edo erabileren kasuan, burutuak izan edo exekuzio bidean, foru baimenik gabe edo baimenean ezarritako baldintzen kontra egiten badira. Zehatzeko eskumenak ere baditu, 35/2002 Foru Legearen 220. artikularekin bat.

Aurrekoa gorabehera, eskumen maila berean eta, beraz, besteak baztertu gabe, toki administrazioek esku har dezakete hirigintzako legezketasuna berrezartzearen arloan.

Aipatutako arauaren 219.2 artikulua ezartzen duenez, halaber, "delitu edo hutsegite zantzuak baldin badaude, zehapena jartzeko eskumena duen organoak Ministerio Fiskalari jakinaraziko dio, eta zehapen prozedura eten egingen da, harik eta agintaritzak judizialak erabakia eman arte. Zehapen penala baldin badago, administrazio zehapenik ez da jarriko, baina hirigintza legezketasuna eta kaltetutako errealitate fisikoa lehengoratzeko neurriak, kasua bada, ezartzen ahalko dira."



Aurreko gutzia dela-eta, Sustapen Departamentura igortzen diren salaketei, partikularrek nahiz agintaritzaren agenteek (Basozaintza, Foruzaingoa eta SEPRONA) egindakoei, eskumen- eta sektore-azterketa egiten zaie haiek bideratu eta ebatzi baino lehen.

5.- Ea izapidetu den Basozaintzak nekazari bati jarritako salaketa, zeinari jarraikiz nekazariari espetxe-zigorra ezarri baitzioten

Zigor arloko jarduketak egin ziren, eta, kontuan izanik zigor arloko auziak lehentasuna duela administrazioarekiko auziaren gainetik, ez zen salaketa administrazio bidetik izapidetu.

Zigor prozesuko epaia jasotakoan ez zen zeharpen prozedurarik hasi. Baina arau-hausleak aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko prozedura hasi zen.

Hori gutzia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko azaroaren 22an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Iruñeko ikasleek asteburuetan liburutegi publikoak erabiltzeko dituzten arazoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Iruñeko ikasleek asteburuetan liburutegi publikoak erabiltzeko dituzten arazoei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Iruñeko ikasleek liburutegi publikoak erabiltzeko dituzten arazoei buruz (PES-00170). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako liburutegi publikoen zerbitzu-zorroan liburutegiak erabiltzeko ordutegiak ezarritzerakoan aintzat hartu da zein unetan jotzen duten erabiltzaileek haietan eskaintzen diren zerbitzuetara. Ikasketa da zerbitzu horietako bat, eta ez lehentasunezkoa, gure ustez hezkuntza erakundeek (ikastetxe eta unibertsitateek) eman behar baitute zerbitzu hori. Erakunde horietako batek erabaki du ordutegiak murriztea ikasle askok ikasteko erabiltzen dituzten bere liburutegietan. Erabaki partikular horrek ez du, gure ustez, liburutegietako zerbitzuak emateko ereduaren aldaketarik justifikatu behar.

Hori gutzia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko azaroan. Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, traumatologiako itxaronzerrendari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, traumatologiako itxaronzerrendari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du traumatologiako itxaronzerrendari buruz (8-13/PES-00183). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

1. Zer neurri zehatz ari zarete hartzen Traumatologiako itxaronzerrenda arintzeko? Zein epetan?

Kirurgiako eta kontsulta anbulatorioetako itxaronzerrendaren arazketa administratiboa egiten ari da, egiturazko itxaronzerrenda antolatzen eta berrikusten ari da eta eskaeren bikoiztasunak kentzen ari dira (amaiera 2014ko urtarrilean), NOGeko Programazio Zerbitzuaren eta Traumatologia Zerbitzuaren ardurapean.

Ubarmin Klinikaren ebakuntza kirurgikoa egin behar zaien gaixoen ebakuntza aurreko zirkuitua bizkortzen ari da (amaiera 2014ko urtarrilean), NOG-Dko Anestesia Zerbitzuaren eta NOG-Dko Barne Medikuntzako Zerbitzuaren ardurapean.

Programazio kirurgikoaren leheneste hirukoitza egiten ari da, premia klinikoa, itxaronzerrendako antzinasuna eta Bermeei buruzko Foru Legearen betetzea oinarri harturik (hasiera 2014ko urrian), NOGeko Programazio Zerbitzuaren, NOGeko Traumatologia Zerbitzuaren eta NOG-Dko Anestesiako eta Barne Medikuntzako zerbitzuen ardurapean.

NOGeko Traumatologia Zerbitzuaren etxeko ospitalizazioa ezartzen ari da (hasiera 2014ko azaroan), NOGeko Etxeko Ospitalizazioaren Atalaren eta Traumatologia Zerbitzuaren ardurapean.

NOGeko Traumatologia Zerbitzuko Erraki Ataleko blokeo epiduralen errendimendu handiko zirkuitua taxutzen ari da (hasiera 2014ko azaroan), NOGeko Traumatologia Zerbitzuaren ardurapean.

Handitu egingen dira kontsulten ratioak, haien errendimendua eta lokal erabilgarrien okupazioa (hasiera 2014ko urtarrilean), NOGeko Programazio Zerbitzuaren eta NOGeko Traumatologia Zerbitzuaren ardurapean.

2. San Juan de Dios Ospitalean ebakuntzak bertan behera utzi zirenetik, nola ari zaio heltzen Itxaronaldien bermeei buruzko Foru Legeari?

Kirurgia programaturako 8 operazio-gela dituen Ubarmineko kirurgia-bloke berria irekitzeak bide eman behar du prozedura guztiak barnean egiteko; horregatik utzi zen bertan behera San Juan de Dios Ospitalean espezialitate kirurgiko horretako lana.

Programazio kirurgikoaren leheneste hirukoitza egiten ari da, oinarritzat harturik lehendabizi, betiere, premia klinikoa, eta bigarrenik itxaronzerrendako antzinasuna eta Bermeei buruzko Legearen betetzea.

Bermeei buruzko Foru Legea betetzeko NOGeko zuzendaritzak duen konpromisoa hain da irmoa non 2013. urtean kirurgia zerbitzuekin egindako kudeaketa-itunen lorpenaren %50 oinarritzen baita kirurgia prozesuen Bermeei buruzko Legearen %70eko edo goragoko betetze mailan, egiturazko itxaronzerrenda kirurgikoan dauden gaixoei dagokienez.

Kirurgiako itxaronzerrendaren bilakaera eta kirurgiako batez besteko itxaronaldia azken lau hilabeteetan honako hauek izan dira (hilaren azken eguneko datuak):

KIZ	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA
Traumatologia Helduak	3228	3114	3087	2755
Traumatologia Haurrak	34	52	21	26

KBBI	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA
Traumatologia Helduak	200	217	212	202
Traumatologia Haurrak	299	213	43	17

KIZ: kirurgiako egiturazko itxaronzerrendako gaixoen kopurua.

KBBI: kirurgiako egiturazko itxaronzerrendako gaixoen batez besteko itxaronaldia.

Kirurgiako egiturazko itxaronzerrendako gaixotatik, azaroaren 13an Bermeei buruzko Legeko epeen barruan dauden (BL) ehunekoak honako hauek dira:

Atalak	KIZeko gaixoen kopurua	BL gaixoen ehunekoak
Helduak	109	75
Aldaka	447	41
Oina	199	61
Haurrak	26	100
Errakia	115	60
Belauna	1252	30
Goiko Unitatea	595	61

3. Zenbat operazio-gela erabilgarri ditu une honetan O-NOZek? Operazio-gela gehiago irekitzerik aurreikusten al da? Hala baldin bada, noiz irekiko dira?

O-NOZen erabilgarri dauden operazio-gelen kopurua:

NOG A: kirurgia programatuko 9 operazio-gela eta hil ala biziko larrialdietarako operazio-gela bat, brakiterapiako operazio-gela bat eta angiografo bat.

NOG B: kirurgia programatuko 10 operazio-gela, larrialdi geroratueterako operazio-gela bat eta hil ala biziko larrialdietarako operazio-gela bat, Kirurgia Pediatrikorako 2 operazio-gela.

NOG D: kirurgia programatuko 8 operazio-gela.

Lizarrako García Orcoyen Ospitalea: kirurgia programatuko 3 operazio-gela (horietako batek programazio erdia du, Kirurgia Orokorreko, Traumatologiako edo Urologiako hil ala biziko larrialdi-

ren bat sortuko balitz ere) eta obstetrixiko larrialdietarako operazio-gela bat.

Tuterako Reina Sofía Ospitalea: kirurgia programatuko 3 operazio-gela, kirurgia lokaleko operazio-gela bat eta hil ala biziko larrialdietarako operazio-gela bat.

O-NOZen irekitzeke dauden operazio-gelen kopurua:

NOG A: 2 operazio-gela.

NOG B: 8 operazio-gela (obra 2014ko azken hiruhilekoan amaitzea aurreikusten da).

NOG D: ez dago obra amaitu gabeko edo ireki gabeko operazio-gelarik.

Lizarrako García Orcoyen Ospitalea: ez dago obra amaitu gabeko edo ireki gabeko operazio-gelarik.

Tuterako Reina Sofía Ospitalea: 7 operazio-gela, guztira (obra amaituta, irekitzeko data aurrei-

kusi gabe, gaur egungo 4 operazio-gelei beste 3 erantsiko zaizkie).

4. Aintzat hartu al da San Juan de Dios Ospitaleko operazio-gelak traumatologiako ebakuntzetarako berriro erabiltzeko aukera?

Kirurgiako programazioa SJDO erietxe itundura deribatzen beharra hiru hilean behin aztertzen da. Kontuan hartzen dira unean uneko artapen premiak eta NOGeko kirurgia zerbitzuek beren gain har dezaketen kirurgia lana.

Kirurgia zerbitzu itunduen erabilera modurik egokienean kudeatu behar da kalitatezko osasun

laguntzarik onena eta kostuen preziorik txikiena bermatzeko.

NOGeko Traumatologia Zerbitzuko kirurgiako itxaronzerrenda kontrolatzeko hartutako neurriak gaur egun arrakastatsuak dira, eta egiteko zain dauden kirurgia prozesuak barnean egin daitezzen lortzen dute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko azaroaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Ega ibaian hilik agerturiko karramarroei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin M.^a del Carmen Ochoa Canela andreak egindako galderaren erantzuna, Ega ibaian hilik agerturiko karramarroei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Mari Carmen Ochoa Canela andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Ega ibaian hilik agertu diren karramarroei buruz (8-13-/PES-00180). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak:

1.- Zer arrazoiengatik hil dira milaka karramarro Ega ibaian?

Hiltzearen arrazoiak ez daude egiaztatuta oraindik. Nolanahi ere, Foruzaingoa ikerketa egingen ari da.

2.- Nola funtzionatu du karramarro autoktonoa leheneratze aldera Nafarroako Gobernuak taxututako planak?

Karramarro autoktonoa leheneratzeko plana 1996an onetsi zen, espeziea suspertzeko neurriak ahalbidetu nahian. Horrekin batera, xede bererako,

karramarro aloktonoen egoera antolatu zen, garai bereko foru dekretu baten bitartez.

Dekretuak hasieratik eragin positiboa izan zuela erakusten du emaitzak, nahiz eta 2001etik 2008ra bitartean karramarro autoktonoaren zenbait populazioen galera detektatu zen, kanpoko karramarroak hedatu zirelako, funtsean, eragile naturalen eta gizakien erruz.

Geroztik, egindako lanak pixkanaka emaitzak ekarri ditu eta dagoeneko populazioen kopurua nabarmen hazi da (denboraldi honetako behin betiko datuak falta dira oraindik, eta goranzko joera berretsiko dutela espero da).

Hona hemen erroldatutako populazioen kopuruak, afanomikusia sartu eta urte batzuk geroago hasita, 1986an:

Urtea	Populazioen kop.
1986	130
1991	55
1995	55
1997	62
1999	70
2001	66
2004	61
2005	53
2006	51
2007	61
2008	60

2009	72
2010	87
2011	95
2012	129

Ondoriozta dezakegu, beraz, leheneratze plana tresna eraginkorra izaten ari dela espeziea suspertzeko, baina zuhur ibili behar da eta gogoan izan suspertzearen dinamika noizbait karramarro aloktonoen hedapenak eragoz dezakeela, karramarro autoktonoaren birkolonizaziorako toki aproposen existentzia baldintzatzen jarraitzen baitute.

3.- Ikertu al zen zergatik denboraldi honetan hain arrantza gutxi egon den eremu horretan bertan karramarroak hilik agertu diren, aurreko kanpainetan ugaria izanik ere?

Karramarro hilak agertu arte arrantzaleek ez dituzte eremu horretako karramarro-dentsitate txikiak aipatu. Departamentuak ez ditu oraindik jaso karramarro arrantzaren denboraldiko memoriak, arrantzaleen elkarteek igorri behar dizkiotenak. Beraz, ez da inguruabar horren berririk jakin, oraindik ez da hura egiaztatu eta, ondorioz, ez da ikertu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, 2013rako defizit-helburuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, 2013rako defizit-helburuari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2013rako defizit-helburuari buruz (PES-00181). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak: Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguaren kontseilariak:

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak administrazio publiko guztien aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraukortasuna arautzen ditu, bai Estatuarenak bai autonomia erkidegoenak.

Lege horren azken xedapenetako hirugarrenean foru araubidearen aipamena egiten da, behar den bezala, eta adierazten da, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, lege hori Estatuaren

eta Nafarroako Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoari jarraituz aplikatuko dela.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoari buruzko abenduaren 26ko 28/1990 Legeak 67.2.1) artikuluan hitzarmeneko Koordinazio Batzordeari esleitzen dio aurrekontu-egonkortasunaren arloko lankidetzeta eta koordinazio konpromisoak adostea.

Zure galderei dagokionez, hauxe adieraz daiteke: gauzatu da Nafarroaren eta Estatuaren arteko alde biko akordioa, 2013rako defizit-helburuari buruzkoa, eta 2013ko azaroaren 26an sinatu zen Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko akordioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren arloetako 2013rako helburuak zirela-eta; horren kopia erantsi dizut.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduaren 5ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguaren kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 2010-2014 urteetarako Landa Garapen Iraungarrirako Plana dela-eta hitzarmena sinatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 2010-2014 urteetarako Landa Garapen Iraungarrirako Plana dela-eta hitzarmena sinatzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarra andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakitekoa zertan den Landa Garapen Iraunkorrari buruzko 2010etik 2014ra bitarteko Plana Nafarroan finantzatzeko Hitzarmena, atzeratu egin baitzen haren sinatzea, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak uste zuelako Nafarroa ez zela defizit-helburua betetzera iritsi (8-13/PES-00188). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak:

1. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak 2012ko lehen seihilekoan Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari behin eta berriz eskatu zion erabakia hartzeko Landa Garapen Iraunkorrari buruzko 2010etik 2014ra bitarteko Planak Nafarroan irautez eta haren aplikazioaz.

2012ko abuztuaren 8an Ministerioak jakinarazi zuen Landa Ingurumenean Garapen Iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legearen aplikazioa

gelditu egingen zela Ministerioak berak legea aldatu arte.

Ministerioak adierazi zuen lege hori aldatu egingen zela haren aplikazioa eraginkorragoa izan zedin, eta nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza eta elikadura sektoreak indartuko dituzten eta landa eremuetako jarduera ekonomikoa biziberrituko duten ekintzetara bideratu nahi zela landa garapena, dibertsifikaziorako eta enplegu-sorkuntzarako funtsezko ardatz gisa.

Adierazpen horretan Gobernu zentralak esan zuen gure landa ingurunea garatzeko politika aktibo eta koordinatua aplikatzearen aldeko apustuari eusten ziola, politika horrek buelta eman behar diela huste eta jendegabetze prozesuei, eta biztanleen bizi baldintzak hobetu behar dituela hirialdeetako biztanleekin parekatu arte.

Baina gaur arte ez dugu inolako berririk izan horretaz.

2. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Landa Ingurumenean Garapen Iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legea aldatu arte ez dakigu zein izanen diren jarduketak egiteko epea eta egutegia.

3. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Landa Ingurumenean Garapen Iraunkorrerako abenduaren 13ko 45/2007 Legea aldatu arte ezin zaio erantzun galderari, ezin delako jakin nola geratuko diren legearen norainokoa, jarduketak eta lotutako finantza-hornidura.

Iruñean, 2013ko abenduaren 11n

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroak Harrera Zentroen Sare Nazionalerako jarritako baliabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderen erantzuna, Nafarroak Harrera Zentroen Sare Nazionalerako jarritako baliabideei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Populares de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2013ko ekainaren 17an Berdintasunaren Konferentzia Sektorialak Harrera Zentroen Sare Nazionala ezartzeko hartu zuen erabakia dela-eta (8-13/PES-00187). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

Berdintasunaren Konferentzia Sektorialak, ekainaren 17an egin zuen bileran, Genero Indarkeria Errotik Kentzeko I. Estrategia Nazionala onetsi zuen 2013-2016 bitarteko urteetarako.

Estrategia hori zazpi ardatz eta 258 neurriren inguruan egituratu da, horien bidez erantzuna eman nahi baitzaie antzemandako arazo nagusiei:

1. Emakumeen eta horien inguruko enbiziaren urratzea.

2. Erantzun eraginkorragoa eta pertsonalizatuagoa eman beharra.

3. Arreta jartzea adin txikikoei eta talde ahulei (zaharrak, landa eremukoak, etorkinak eta desgaitasuna duten emakumeak).

4. Arreta jartzea beste indarkeria mota batzuei, besteak beste, ezkontza behartuei, genitalen mutilazioari edo sexu-ustiapenerako pertsonen salerosketari.

5. Arloko profesional guztien prestakuntza hobetzea.

6. Koordinazioa eta sareko lana hobetzea.

7. Ebaluazioa, ezagutza eta etengabeko hobekuntza.

Harrera Zentroen Sare Nazionala ezartzea ere berriazko neurrietako bat da, eta 6. helburuan aurreikusita dago, koordinazioa hobetzeko helburuan hain zuzen. Biktimen eta beren kargu dituzten adingabeen babesa eta segurtasuna hobetzeko eta haien suspertze integrala ahalbidetzeko ekimena da.

Autonomia erkidego bakoitzean dauden larrialdietarako zentroak, harrera-etxeak eta babespeko etxebizitzak sartu dira sarean, laguntza-maila guztiak estali ahal izateko moduan.

Autonomia erkidego sinatzaile guztiok, tartean Nafarroako Foru Komunitateak, konpromisoa hartu dugu lau hilabeteko epean deribazio-protokoloa sinatzeko. Protokolo horretan emakume erabiltzaileentzako banakako arretaren irizpideei jarraituko zaie. Jatorrizko autonomia erkidegoak alegatutako larrialdietan, deribazioa 24 orduko epean ebatziko da.

Harrera-etxeen sare berriaren oinarriak ezartzeko, duela gutxi lantalde bat sortu da eta plataforma birtual bat abiarazi da autonomia erkidegoekin (2013ko azaroaren 15ean aktibatua), Osasunaren, Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Ministeriotik. Horren esparruan hainbat gai jorratuko dira, besteak beste, nazio mailan harrera-zentroak sarean jartzeko lanen hasiera. Plataforma horren bitartez laster hasiko dira jardunean lantalde guztiak.

Esan behar da, azkenik, Nafarroak orain arte ez diola utzi indarkeriaren biktima diren eta beren arrisku egoerarengatik bizilekuz aldatzea erabaki duten emakumeen eskaria asetzeari. Horretarako, eta modu informalean orain arte, beharrezkotzat jo diren lekualdaketak eskatu dira, beste autonomia erkidego batzuek ere Nafarroari eskatu dizkioten bezala.

Hortaz, Nafarroako harrera-baliabideetan ostatu hartuta zeuden emakumeen zortzi lekualdaketa kudeatu dira 2008tik hona. Bilbora, Kataluniara, Madrilerara eta Vigora aldatu dira. Lekualdaketa eskatu zaien autonomia erkidegoetan emakumeen sare formal edo informali badagoen hartu dugu kontuan helmugak aukeratzetarakoan, emakumeen suspertze egokia errazteko.

Eta Logroño (bi kasu), Terueleko eta Gas-teizko harrera-baliabideetatik emakume batzuk

Nafarroako baliabideetara lekualdatzeko kudeaketak egin dira.

Halaber harrera-baliabideetan ostatu eskaini zaie Alacantetik (bi), Bilbotik eta Madriletik etorritako lau emakumeri, Iruñean egindako auzian parte hartzeko. Auzia amaitutakoan jatorrizko baliabideetara itzuli ziren.

Esan dezakegu, beraz, orain arte deribazio-protokolo formalik izan ez bada ere, modu egokian

bideratu direla harrera-baliabidez aldatzeko eskaera guztiak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduaren 10ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Osasun Departamentuak kontrataturiko *coach* zerbitzuaren koordinazio-lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Enrique Martín de Marcos jaunak egindako galderaren erantzuna, Osasun Departamentuak kontrataturiko *coach* zerbitzuaren koordinazio-lanei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Enrique Martín de Marcos jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Osasun Departamentuak kontrataturiko *coach* zerbitzuaren koordinazio-lanei buruz (8-13/PES-00186). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariak:

1.- *Coach*aren kontratazioaren kostua

Guztizko kostua 8.712 euro izan da (7.200 € + BEZa).

2.- Lana zer epetan egin duen

Lanak 2013ko abuztuaren 22tik urriaren 29ra bitartean egin ziren.

3.- Hasiere batean aurreikusitako lan-kronograma bete ote den, eta egindako bilerak zehaztea.

Bai. Kronograma aurreikusita zegoen bezala bete da.

Zehaztutako egunetan egin ziren aurreikusitako sei saioak Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzuko Elikadura Zerbitzuarekin lotuta eratu zen taldearekin, eta denak egin ziren normaltasun osoz.

Lehenbizikoa abuztuaren 22an izan zen, bigarrena irailaren 6an, hirugarrena irailaren 20an, laugarrena urriaren 4an, bosgarrena 18an, eta seigarrena eta azkena urriaren 29an. Bilera guztiak Nafarroako Ospitalegunean egin ziren, Osasun Departamentuaren Irakaskuntza Pabiloian, 09:00etatik 13:00etara bitartean.

Guztira 13 pertsona gonbidatu ziren parte hartzera (arloko buru bat, guardiako buru bat, NOG-Ako erizain bat, NOG-Ako erizaintzako laguntzaile bat, NOG-Bko erizain bat, NOG-Bko erizaintzako laguntzaile bat, zeladore bat, dietista bat, bi mediku nutrizionista, Elikadura Ataleko burua, Mediterránea de Cateringeko dietista bat eta O-NOZeko Berrikuntza Zerbitzuko burua). Bi pertsonak baizik ez zuten erabaki saio guztietara ez joatea.

Eta beste sei bilera egin ziren Nafarroako Ospitaleguneko Administrazio eta Zerbitzu Orokoren Zerbitzuko buruarekin bakarrik, horiek ere aurreikusitakoaren arabera eta normaltasun osoz.

4.- Jarritako helburuak zenbateraino bete diren.

Hauek ziren taldearen helburuak: Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuko elikadura prozesuaren azterketan sakontzea; hausnartzea nola susta daitezkeen lankidetzak eta konfiantza, lidergoa eta erantzukizuna, lan eraginkorra egiteko; eta aldaketak kudeatzeko baliabideak garatzea.

lido horretan, taldeko kideek berek adierazi dutenez, helburuak % 100ean bete dira.

5.- Antza denez, *coachak* egindako lanaren ondorioztapenak ez dira ezagutzera emanen. Zergatik?

Bileretan erabilitako metodologiari jarraituz, funtsean lan praktikoa, aktiboa eta multimodala egin da, teknika aktiboak, *role-playinga*, talde-analisiak eta egoeren gaineko eztabaida baliatuz. Parte hartzaileek ekarritako kasu praktikoekin ere lan egin da. *Coaching* tekniketan ohi den bezala, helburua da norbait, oraingoan pertsona talde bat, gidatu eta trebatzea eta gauzak irakastea, emaitza pertsonal hobeak lor ditzaten edo berariazko trebetasunak gara ditzaten. Helburua ez da, beraz, inolako ondoriorik ateratzea, ekintzarako aukera berriak sortu edo begiztatzea baizik.

6.- Osasun Departamentuak esperientzia hori dela-eta zer balorazio egiten duen, eta esperientzia hori Nafarroako Osasun Zerbitzuko beste esparru batzuetan aurrerantzean aplikatzeko aukerak.

Osasun Departamentuak esperientziaren balorazio guztiz positiboa egin du, eta hala adierazi du O-NOZeko Zuzendaritza Batzordeak taldeko kide guztiei bidalitako gutunean. Bertan esaten du, hitzez hitz, nahi duela "taldeko kideok taldean proiektatu dituzuen lana eta esperientzia aitortu, eta eskerrak eman gaixoen arreta hobetzeko zure lanagatik, dedikazioagatik, interesagatik eta ahalegin pertsonalagatik, etengabeko hobekuntzan elkarrekin egiten ari garen bide honetan".

Eta etorkizuneko aplikazioei dagokienez, *coachinga* teknika oso erabilia da lanbide arlo askotan, arlo horietan bere eraginkortasuna erakusten ari da eta, noski, O-NOZi ez zaio oharkabean pasatzen herritarrei ematen zaien arreta eta zerbitzua hobetzea berekin ekar dezakeen edozein berrikuntza.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, diru-sarreraren betetze-egoerari eta abenduaren 31rako ekitaldi-itxierako aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, diru-sarreraren betetze-egoerari eta abenduaren 31rako ekitaldi-itxierako aurreikuspenari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du diru-sarreraren betetze-egoerari eta abenduaren 31rako aurreikuspenari buruz (PES-00182). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde, eledun eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Erantsita bidali dut diru-sarreraren betetze-egoerari buruzko informazioa, kontusailka zehaztuta. Kontabilitate Zerbitzuak hileroko bidaltzen dio informazio hori Nafarroako Parlamentuari, Koldo Amezketa Díaz parlamentari jaunak hala eskaturik, eta erakunde horrek 2013ko maiatzetik aurrerako datuak ditu dagoeneko.

Ekitaldi-itxierarako aurreikuspenari dagokionez, diru-bilketan eragina izan dezaketean aldagaiak hainbeste direnez, ezin da nahi adinako zehaztasunez jakin zein izan litekeen zenbateko hori. Nolanahi ere, ekitaldi-itxierako datuak Parlamentuari emanen zaizkio lehenbailehen, aurreko leerroaldean azaldutako prozeduraren bidez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduan

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, AP-15eko 50. irteeran (iparra) “Estella-Lizarra” seinalizazioa paratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, AP-15eko 50. irteeran (iparra) “Estella-Lizarra” seinalizazioa paratzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 22ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak Parlamentuko galdera egin du “Estella-Lizarra” seinalizazioa paratzeari buruz (PES 195). Zehazki, hau galdetu du:

1. Nafarroako Gobernuak aurreikusita al dauka “Estella-Lizarra” paratzea AP-15 autobideko 50. irteerako (iparraldea) bide-seinalean?

2. Audenasak bide-seinale horri buruzko aholkurik eman al dio Nafarroako Gobernuari?

3. Audenasaren kudeaketa planetan ba al dago eskabiderik, bai Lizarrako Udalarena, bai enpresa edo partikularrena, 50. irteerako (iparraldea) bide-seinalean “Estella-Lizarra” aipamena gehitzeko?

Galderari erantzunez hauxe adierazten da:

1. Nafarroako Gobernuak oraingoz ez dauka aurreikusita “Estella-Lizarra” paratzea A-15 autobideko 50. irteerako (iparraldea) bide-seinalean. Ildo horretatik 2012ko azaroaren 26an Lizarrako Udalak eskatu zuen kontuan har zedila AP-15eko 50. irteeran “Estella-Lizarra” ere jartzeko aukera, lehendik dagoen “Tafalla” testuaren ondoan.

Sustapen Departamentuko Kontserbazio Zerbitzuak eskaera aztertu ondoren aukera hori baztertu zuen, arrazoi hauengatik:

- AP-15eko seinalizazioari buruzko irizpide orokorra da irteera bakoitzean helmuga hurbilenak seinalatzea: Azkoién, Martzilla, Tafalla, Erriberri, Alesbes, Castejón...

- 50. irteeran, “Estella-Lizarra”rako orientazioa eskatu den horretan, ez dago seinalerik pareko beste helmuga batzuetarako, adibidez Zangozara-

ko, nahiz eta lotune horretatik bertatik zeharkako errepide bera (NA-132) hartuta Zangozara irits daitekeen.

- Iruñetik Lizarrara joan nahi duenak ez du AP-15 autobidea hartu behar, A-12a baizik.

- Tuteratik Lizarrara joan nahi duenak ez du AP-15 autobidea hartu behar Tafallaraino, baizik eta NA-134 errepidea Andosillaraino eta handik NA-122 errepidea Lizarraraino. Ibilbide horretan badago saihebidetua herri handi samar guztietan.

- AP-15eko 50. irteeratik Lizarrarantz abiatuz gero, Tafallan zehar kale arteko bide konplikatu egin behar da NA-8607 errepidetik: biribilguneak, oinezkoentzako zenbait pasabide (horietako batzuk koskadunak), semaforoak, 90º-ko bidegurutze bat hiri barruan, eskola eremua, tarte batean 30 km/h-ko muga... Bide segurtasunaren ikuspegitik komenigarritzat jotzen da ibilbide hori saihestea paseko trafikoan.

- Argudia liteke Tafalla vs Lizarra egoera horren parekoa dela A-12koa, eta hala ere bertan NA-132 errepidearekiko bidegurutzean “Tafalla” seinalea dagoela. Baina azken kasu horretan Tafallara iristeko ez dago Lizarrako kale artean sartu beharrik.

Eskatzen den seinalizazio horrek bai hartuko duela zentzua Tafallako hegoaldeko saihebidetua eraiki eta funtzionamenduan jartzen den egunean. Hain zuzen ere hiri barruko trafikoa saihesteko asmoz proiektatu da errepide hori, baina hiri barruko trafikoa hazi egingen litzateke autobideko bide-seinalean “Estella-Lizarra” jarriz gero, eskatu den moduan.

Bestalde, kontuan hartu behar da Tafallako hegoaldeko saihebidetua Tafallako Udalak berak eskaturik proiektatu dela. Udal horrek, koherentziaz, aurka egingen lioke eskaera honi.

Laburbilduz, eskatutako seinalizazioa geroko utzi behar litzateke, Tafallako hegoaldeko saihebidetua zerbitzuan jartzen denerako.

2. Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak iritzia galdetu dio AP-15 autobideko enpresa kontzesiodunari (Audenasa) eta hura ere bat dator aurrean azaldutako irizpideekin; oraingoz ez du beharrezkotzat ez komenigarritzat jotzen seinalizazio hori, funtsean, ez dagoelako zuzeneko loturarik AP-15etik NA-132ra; aitzitik, hiri barruko tarte konplikatu eta arriskutsu bat zeharkatu behar da,

eta edozein kasutan garraio astuna mugatu behar litzateke, bere neurriengatik.

3. Hain zuzen ere behinola Lizarrako alkateak antzeko eskaera egin zion Audenasako presidenteari, eskaera hori Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari igorri zitzaion eta eran-

tzuna goragoko 1. puntuan azaldutakoaren antzekoa izan zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak gauzatutako ekimenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak gauzatutako ekimenei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak gauzatutako ekimenei buruz (PES-00189). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak bigarren

lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

2012ko ekitaldian Fundazioak inbertsio hauek egin zituen, guztira 242.024,00 eurokoak:

– Ahuntzen Zubia zaharberritzea	76.343,00 €
– Obrak Santa Criz aztarnategian	4.163,00 €
– Argitalpenak, erakusketak eta bestelako hedapen-gastuak	80.518,00 €
– Andelos erromatar hiriko obrak	81.000 €

Aipatutako ekitaldian Nafarroako Gobernutik 81.000 euroko diru-laguntza jaso zuen Andelosko aztarnategi arkeologikoan museoa egiteko eta 112.500 euroko beste diru-laguntza bat funtzionamendurako eta gastu orokorretarako. Gainerako gastuei Fundazioaren beraren soberakinen kargura egin zitzaion aurre.

Hona hemen patronatuak 2013ko ekitaldirako onetsitako aurrekontua eta horren gauzatzea:

Gastuak	Guztira	2013. urtea	Gastatua
Iruñeko katedraleko San Jose atea zaharberritzea	235.000 €	45.000 €	41.567,20
Leringo Andre Maria elizako organoan esku hartzea	200.000 €	50.000 €	
Konponketa Nafarroako Museoan	150.000 €	150.000€	47.087,75€
Ledeako aztarnategian esku hartzea	45.000 €	45.000 €	44.999,40€
Idea lehiaketa. Erriberriko And. Mariako atea eta klaustr.	15.000 €	15.000 €	
Oinarrizko funtzionamendua (auditoria barne)	43.000 €	43.000 €	
Ikerketak, hedapena, zabalkundea eta prestakuntza	50.000 €	50.000 €	3.000,00€
Santa Criz aztarnategian esku hartzea	10.000 €	10.000 €	9.980,50€
GUZTIRA	748.000 €	408.000€	146.652,93

Diru-sarrerak	2013. urtea
Interes finantzarioak	22.430 €
Aurreko ekitaldietako emaitzen kontura	385.570 €
GUZTIRA	408.000 €

Azaroaren 25ean Fundazioak 604.347,07 euro zituen aurreko gastu horiei aurre egiteko, besteak beste, eta 455.518,21 euro gehiago zituen Santa Criz aztarnategirako, Pirinioetako autobiako enpresa adjudikaziodunarekin sinatutako hitzarmenetik ateratakoak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko abenduan

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, herritar-txartela ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maite Esporrín Las Heras andreak egindako galderaren erantzuna, herritar-txartela ezartzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 22ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Heras andreak idatziz erantzuteko galdera egin du aurrekontu-aldaketa baten arrazoiei buruz (PES 191/2013). Hau erantzun dio Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

1. Herritar txartelek 17.699,61 euroko kostua izan dute 2012an eta 8.932,96 eurokoa 2013an.

2012an erositako txartelen kopuruak urteko batez besteko kontsumoa eta erreserbako gordailu baten mantentzea estaltzen zituen. 2013an, eskaera doitu egin zen urteko beharrak estaltzeko, eta aurreikusitako erreserbak erabiltzea izakinak agortu arte.

2. Aurreko atalean azaldutako kostuek ez dituzte barruan hartzen sistema garatzeko eta berari eusteko kostuak, horien artean 2001etik aurrera proiektua taxutzeko egindako inbertsioak, proiektuaren ezarpenerako egindako garapen teknologikoak, Txartelen Erregistro Zentralea zerbitzuan jar-

tzea edo berariazko instalazio nahiz eboluzioen gauzatzea; ezta toki entitateei instalazio eta zerbitzuen erabilera kudeatzeko sistema egokiak eskura zitzaten eman ahal izan zaizkien diru-laguntzak ere. Halaber ez dituzte barruan hartzen ez Txartelen Erregistro Zentralea mantentzeko barneko lanen kostuak, ez eskaerak eta billegia kudeatzeko kostuak, ezta hornidurarako egiten diren bidalketen gastuak edo langileek egiten dituzten joan-etorriak ere.

Nolanahi ere nabarmendu behar da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak mantendu egingo duela herritar txartelari eusten dion sistema, eta halaber Nafarroako toki entitateei haren kudeaketarako behar duten laguntza eta aholkularitza eskainiko diela.

3. Herritar txartela doakoa da herritarrarentzat, Nafarroako Gobernuak edo toki entitateek lehenbiko aldiz ematen diotenean.

Jatorrizko txartela galdu edo apurtu delako edo beste instalazio eta zerbitzu batzuetara aldatzeko beste txartel bat behar dela oker pentsatu delako, ordea, txartelaren kopia eskatzen denean, interesdunek kopia ordaindu beharko dute, ematen zaien tokian bertan.

4. Txartelen Erregistro Zentralean egiazta daiteke jatorrizko txartelaren kopia dela.

Erregistro horretan gaur egun 350.000 alta baino gehiago daude.

Iruñean, 2013ko abenduaren 18an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak egindako galderaren erantzuna, Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 22ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak galdera egin du Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiak eratu zenetik orain arte egin dituen bilerei buruz eta Mahaiaren eta Mugikortasunaren eta Garraioaren Behatokiaren egungo osakerari buruz (PES-190). Hona erantzuna:

1. Azaroaren 7ko 133/2005 Foru Dekretuaren bidez (2005eko 141. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua) Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaia sortu eta arautu zen, mugikortasunaren arloan aholku emateko eta parte hartzeko organo gisa. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontseilaria zen Mahaiko lehendakaria.

Foru dekretu horrek Batzorde Aholku-emaile tekniko ere sortu zuen, Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiari laguntzeko unitate gisa.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontseilariaren urriaren 25eko 3/2006 Foru Aginduaren bidez, Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiko eta haren Batzorde Aholku-emaileko kideak izendatu ziren.

2006ko martxoaren 3an Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaia eta haren Batzorde Aholku-emailea eratzeko bilkura egin zen. Bilkura horretan honako gai hauek aztertu ziren:

a) Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaia eta Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiaren Batzorde Aholku-emailea eratzea.

b) Lehendakariaren txostena, Departamentuak mugikortasunaren arloan darabiltzan ekimenei buruzkoa.

c) Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Behatokia.

d) Iruñerrian garraio publikoa eta motor gabeko garraio pribatua sustatu, koordinatu eta garatzeko sortu diren ekimenen berri ematea elkarri.

e) Lanerako plana eta hurrengo bilera egiteko eguna.

Aztergaien zerrendako e) puntuan lehendakariak lanerako plan hau proposatu zion Mahaiari:

a) Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Behatokia diseinatzea eta abian jartzea. Batzorde Aholku-emailearen esku uztea behatokia funtzionamenduan jartzeko urratsak, eta Garraio Zuzendaritza Nagusiaren esku uztea administrazio eta/edo entitate eta elkarte interesdunen arteko koordinazioa eta lankidetzak.

Behatoki hori tresna gisa diseinatu zen; hura erabili behar zen oinarritzat mugikortasuna ebaluatzeko eta mugikortasun iraunkorraren arloko politika irmoak aplikatu ahal izateko. Helburu horien gauzatze fisikoa Iruñerriko mugikortasunari buruzko urteroko dokumentu-txostena eginez zehaztu behar zen.

b) Batzorde Aholku-emailearen esku uztea Iruñerriko I. Mugikortasun Plana taxutzeko proposamena egitea. Proposamen hori Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiari aurkeztuko zaio bere hurrengo bilkuran, lanen hasiera erabakitzeko.

c) Iruñerriko tranbiaren bideragarritasunari buruzko azterketaren bilakaeraren eta nondik norakoaren berri ematea Mahaiari eta haren Batzorde Aholku-emaileari.

d) Informazio bilera egitea Iruñerriko Mankomunitateko Garraio Batzordearekin. Lehendakaria bilera horretara joanen da, proposatutako ekimenen berri zuzenean ematera Mankomunitatean ordezkariak duten talde politikoei.

Lanerako plan horren a) eta b) ataletan Batzorde Aholku-emailearen esku utzitako zereginak zirela-eta, erabaki zen Mahaiak beste bilera bat egingen zuela 6 hilabeteko epean.

Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiaren Batzorde Aholku-emaileak bilera egin

zuen 2006ko irailaren 19an, honako gai hauek jorratzeko:

a) "Iruñean eta bere eskualdean tranbia - metro arina ezartzeko bideragarritasunaren eta aukeren azterketa" izeneko aholkularitza-kontratuko lanen egoera.

b) Iruñeko eta bere eskualdeko hiri mugikortasun iraunkorrerako plana.

c) Mugikortasunaren Behatokia.

Geroago, 2006ko azaroaren 7an, Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiak eta haren Batzorde Aholku-emaileak beste bilkura bat egin zuten. Bilkura hartako aztergaiak bat zetozen eraketa-bilkuran Mahaiaren eta Batzorde Aholku-emailearen lanerako planari buruz hartutako hiru erabakiekin. Gai hauek aztertu ziren:

a) Iruñerriko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana egiteko baldintzen agiria.

b) Iruñerriko Mugikortasunaren Behatokiaren lanen hasiera.

c) Iruñean eta bere eskualdean tranbia - metro arina ezartzeko bideragarritasunaren eta aukeren azterketa abian jartzea.

Bilkura horretan lehendakariak hurrengo bilkura egin arteko ekintza hauek proposatu zituen:

a) Iruñerriko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana egiteko lanak kontratatzea eta abian jartzea.

b) Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren 1. Behatokia amaitzea eta argitaratzea.

c) Tranbiaren azterketa egiten jarraitzea.

d) Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiaren webgunea sortzea.

2007ko maiatzaren 9an egin zuten hurrengo bilkura Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiak eta haren Batzorde Aholku-emaileak. Bilkura horretan, honako aztergai hauek izan zituzten:

a) "Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Behatokia" izeneko agiria aurkeztea.

b) Iruñerriko Mugikortasun Iraunkorrerako Planeko lanen hasiera.

c) Iruñeko eta bere eskualdeko tranbiaren / metro arinaren azterketa.

d) Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiaren webgunea.

e) Mugikortasunaren arloko ekimenak Iruñerrian.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontseilariaren ekainaren 2ko 52/2008 Foru Aginduaren bidez, Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiko eta horren Batzorde Aholku-emaileko kideak berri ziren.

Berritze horren ondoren, 2008ko abenduaren 18an Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiak eta haren Batzorde Aholku-emaileak azken bilkura egin zuten, aztergaien zerrendan gai bakarra zutela: Iruñerriko Mugikortasun Iraunkorrerako Planeko diagnostikoaren eta jarduteko proposamenen aurkezpena.

2. Aurrean esan denez, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontseilariaren ekainaren 2ko 52/2008 Foru Aginduaren bidez Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiko eta horren Batzorde Aholku-emaileko kideak berri ziren.

Foru agindu horren lehen puntuan Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiko kide hauek izendatu ziren:

a) Lehendakariordea: Susana Labiano Bastero andrea, Garraioaren zuzendari nagusia, eta ordezkoko gisa Beatriz Sanz García andrea, Garraioaren Plangintza eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendaria.

b) Mahaikideak:

– Javier Torrens Alzu jauna, Iruñerriko Mankomunitateko lehendakaria, eta ordezkoko gisa José Ricardo Pérez Torrano jauna, Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariordea.

– Yolanda Barcina Angulo andrea, Iruñeko alkatea, eta ordezkoko gisa Ana Elizalde Urmeneta andrea, Iruñeko Udaleko Mugikortasun eta Herri-tarren Segurtasun Alorreko zinegotzi delegatua.

– Sara Moreno Múgica andrea, Arreko kontzejukidea, eta ordezkoko gisa José María Irisarri Ollacarizqueta jauna, Berriobeitiko alkatea.

– Antonio Gila Gila jauna, Antsoaingo alkatea, eta ordezkoko gisa Manuel Romero Pardo jauna, Arangurengo alkatea.

– José Luis Echávarri Arraiza jauna, Herri Lanen zuzendari nagusia, eta ordezkoko gisa Cristina Presmanes Zataráin andrea, Proiektu, Trenbide eta Obra Hidraulikoen Zerbitzuko zuzendaria.

– Jesús Javier Ascunce Elizaga jauna, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako zuzendari nagusia, eta ordezkoko gisa José Antonio Marcén Zunzarren jauna, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuko zuzendaria.

– Juan Ramón Rábade Iráizoz jauna, Barneko zuzendari nagusia, eta ordezkari gisa Alfredo José González Echarren jauna, Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuko zuzendaria.

– Manuel Arizcun Biurrun jauna, Irache Nafarroako kontsumitzaileen elkarteko zuzendaria, eta ordezkari gisa José Javier Martínez Elizondo jauna, Irache Nafarroako kontsumitzaileen elkarteko legegaria.

– José María Casado Aguilera jauna, Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Entitateen Batzordeko lehendakaria, eta ordezkari gisa Juan Fernández Moreno jauna, Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Entitateen Batzordeko Garraio Batzordeko kidea.

– Eneko Astigarraga Arancibia jauna, Ciudadanos Ciclistas de la Comarca de Pamplona elkartearen ordezkaria, eta ordezkari gisa Gonzalo Echeverría Bomba jauna, Ciudadanos Ciclistas de la Comarca de Pamplona elkartearen ordezkaria.

– José Manuel Ayesa Dianda jauna, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko lehendakaria, eta ordezkari gisa Javier Martinena Bergasa jauna, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko idazkari nagusia.

– Elisabet Azcárate Ezpeleta andrea, Nafarroako Denden Federazioko kudeatzailea, eta ordezkari gisa Blanca Armendáriz Vicente andrea, Nafarroako Denden Federazioaren ordezkaria.

– Manuel Gómez Martínez jauna, Nafarroako UGTko Garraio, Komunikazio eta Itsaso Federazioko idazkari nagusia, eta ordezkari gisa Imanol

Abárzuza Apezarena jauna, Nafarroako UGTko Errepide eta Hiri Sektoreko idazkaria.

– Javier Ibáñez Oraien jauna, Nafarroako CCOOko Komunikazio eta Garraio Federazioko idazkari nagusia, eta ordezkari gisa José Luis Cía Lecumberri jauna, Nafarroako CCOOko Ingurumen Saileko arduraduna.

c) Idazkaria: Charo Loitegui Biurrun andrea, Garraioen Araubide Juridikoaren Ataleko burua, eta ordezkari gisa María Senosiáin Labat andrea, Administrazio Publikoko teknikaria (adar juridikoa), Garraio Zuzendaritza Nagusiari atxikia.

Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaia sortzen eta arautzen duen azaroaren 7ko 133/2005 Foru Dekretuaren 3.5 artikularekin bat etorritik, beren kargua dela-eta Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaiko kide direnek jatorrizko kargua uzten dutenean Mahaiko kide izateari utziko diote, eta gainerako kasuetan izendapenak lau urteko iraunaldia izanen du, non eta izendapena proposatu duen entitate edo erakundeak ez duen aldeztu aurretik kargu-uztea proposatzen. Epe hori iragan da eta Mahaiaren osaketa berri gabe dago.

Behatokiari dagokionez, goian esan den bezala, Mahaiak 2007ko maiatzaren 9an egin zuen bilkuran dokumentu horren lehenengo edizioa aurkeztu zitzaion Mahaiari. Behatokiak ez du egitura organikorik.

Iruñean, 2013ko abenduaren 18an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Residen-en zehazten diren pertsona erabiltzailearen profil berriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderen erantzuna, Residen-en zehazten diren pertsona erabiltzailearen profil berriei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 22ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du egoitzetako plazei buruz, eta ResideN ereduarekin aldaketarik egin behar den galdetu du (8-13/PES-00193). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

- Arau-aldaketaren bat egin behar al da, Residen-en zehazten diren erabiltzaile-profil berrien ondorioz?

Ez dago inolako aldaketarik egin beharrik, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziarentzat kontratu eredu berriak ez dituelako profilak aldatzen: profil guztiak dagozkie gaur egun zahar-etxeetan artatzen ari diren pertsonen. Mendetasuna duten pertsonak eta mendetasunik ez dutenak, horietatik dira profilak Agentziarentzat.

- Nola zenbatuko lirake, ratioei dagokionez, "mendetasun sozial"eko 65 urtetik goitiko pertsonen, ezgaitasuna eta mendetasuna duten 65 urtetik beheko pertsonen eta ezgaitasuna eta mendetasuna duten 65 urtetik goitiko pertsonen okupatutako plazak?

Ratioak pertsonen mendetasunaren arabera kalkulatu dira. Erabiltzaileak 65 urtetik goitikoak edo behekoak izatea edo ezgaitasuna izatea ez da haien mendetasun maila bezain garrantzitsua ratioari begira. Mendetasuna duten pertsonak zahar-etxeetan sartuko dira baldin eta adinekoek bezalako artapen beharrak badituzte.

Mendetasun soziala duten pertsonen kasuan, horietatik mendetasunik gabekoak dira eta mendetasunik gabekoen ratioa aplikatuko zaie.

- Zer neurri hartuko dira, profil berriak dituzten pertsonak zahar-etxeetan egoteagatik sortzen diren beharrezan berriei erantzuteko?

Kontratua da neurria; erabiltzaileen beharrezan eta haien artapena kudeatzea ahalbidetzen duen tresna da.

- Ba al dago edo sortuko al da prozedurarik erabiltzailea baloratzeko eta behar diren zerbitzu bereziak ezartzeko?

Dagoeneko badugu erabiltzailea baloratzeko prozedura bat erabiltzaileari eta haren beharrezan buruzko informazioa ematen duena. Tresna hori Mendetasunaren Balorazioa da, eta erabiltzailearen mendetasun maila zehaztea ahalbidetzen digu. Zahar-etxeetako erabiltzaileen mendetasunaren arabera homogeneotasuna dela-eta, ez dago zerbitzu berezi berririk sortu beharrik.

Zentzorei exijitzen zaizkien ratioei dagokionez:

- Ratio berberak al daude zentro guztietan?

Gutxieneko ratio orokorrak daude, eta, nolana ere, ResideN ereduak bermatzen du egoitza guztietan kalitatezko artapenaren mailak antzekoak izanen direla pertsona guztientzat.

- Zentzoren batean ba al da alderik, edo halakorik gertatzea aurreikusten al da, Concerdep-ekin exijitutakoaren eta Residen-ekin exijitutakoaren artean?

Zuzeneko artapenean eskakizunak antzekoak dira. Terapietan eta fisioterapietan, oro har, ratio txikiagoko egoitzei ordu kopurua handitzeko eskatu zaie.

Osasun zerbitzuetan oso kontuan hartu da ea osasun zerbitzu publikotik zerbitzua ematen zitzaien itundu beharreko egoitzari.

Garbiketa, sukaldaritza eta arropa-garbiketako zerbitzuari dagokionez, ez da ratioerik eskatzen, zerbitzua behar bezala eta kontratuaren arabera betetzea baizik, maiz ikusten baititugu azpikontraturik dauden zerbitzuak.

Hori guztia jakinarazten dizut Erregelamenduen 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

